**JUAN ANTONIO ARIETA-ARAUNABEÑA IBARZABAL JAUNAK, JAULARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIA**

EGIAZTATZEN DUT:

2020ko maiatzaren 5ean egindako Gobernu Kontseiluaren Saioari buruzko aktan, beste batzuen artean, hurrengo Erabakia, agertzen dela:

**ERABAKIA, BATXILERGOKO IKASTETXEETAN IKASLEAK ONARTZEKO PROZESUA – HEZKUNTZAKO SAILBURUAREN 2020KO OTSAILAREN 25EKO AGINDUAREN BIDEZ ARAUTUA – JARRAITZEKO BAIMENA EMATUEN DUENA.**

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzen duenak, hirugarren xedapen gehigarriko 1. puntuan ezartzen du eten egingo direla sektore publikoko erakundeetan prozedurak izapidetzeko epeak, eta adierazten du epe horien zenbaketa berriro hasiko dela errege-dekretu horrek indarra galtzen duen unean edo, hala badagokio, Luzapenak. Honen ondorioz, hasiera batean martxoaren 29ra arte espero zen alarma-egoera maiatzaren 9ra arte luzatu da, azken luzapenaren ondoren.

**JUAN ANTONIO ARIETA-ARAUNABEÑA IBARZABAL, DIRECTOR DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO**

CERTIFICO:

Que en el Acta correspondiente a la Sesión del Consejo de Gobierno celebrada el día 5 de mayo de 2020, consta, entre otros, el siguiente Acuerdo:

**ACUERDO POR EL QUE SE AUTORIZA LA CONTINUACIÓN DEL PROCEDIMIENTO DE ADMISIÓN DE ALUMNADO, EN CENTROS DE BACHILLERATO REGULADO POR LA ORDEN DE LA CONSEJERA DE EDUCACIÓN DE 25 DE FEBRERO DE 2020.**

El Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19, establece, en su Disposición adicional tercera, punto 1, la suspensión de los plazos para la tramitación de los procedimientos en las entidades del sector público, indicando que el cómputo de tales plazos se reanudará en el momento en el que pierda vigencia dicho Real Decreto o, en su caso, las prórrogas del mismo. En consecuencia, el estado de alarma, previsto inicialmente hasta el día 29 de marzo, se ha prolongado, tras su última prórroga, hasta el 9 de mayo.

Ondoren, martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua aldatzen duenak, aldatu egiten du hirugarren xedapen gehigarriaren 4. paragrafoaren idazketa, eta xedatzen du sektore publikoko erakundeek erabaki ahal izango dutela, modu arrazoituan, interes orokorra babesteko edo zerbitzuen oinarrizko funtzionamendurako ezinbestekoak diren administrazio-prozedurekin jarraitzea.

Posteriormente, el Real Decreto 465/2020, de 17 de marzo, por el que se modifica el Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, cambia la redacción del apartado 4 de su Disposición adicional tercera, disponiendo que las entidades del sector público podrán acordar motivadamente la continuación de aquellos procedimientos administrativos que sean indispensables para la protección del interés general o para el funcionamiento básico de los servicios.

Hezkuntza Sailak abian duen prozeduretako bat da 2020-2021 ikasturterako ikasleak onartzea Batxilergoan, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetan eta EAEko itunpeko ikastetxe pribatuetan. Prozedura hori, 2020ko otsailaren 25eko Aginduaren bitartez arautua, bere 2. artikuluan eskabideak aurkezteko egutegi komuna eta izapide bakoitzaren epeak zehazten ditu.

Uno de los procedimientos en curso del Departamento de Educación es la admisión de alumnos y alumnas para el curso académico 2020-2021 en Bachillerato, en centros públicos dependientes del Departamento de Educación y en centros privados concertados de la CAPV. Dicho procedimiento, regulado mediante la Orden de 25 de febrero de 2020, detalla, en su artículo 2, el calendario común de presentación de solicitudes y los plazos de cada uno de sus trámites.

Onarpen-prozesu horretan parte hartzen duten ikasleen zati handi batek orain arte matrikulatuta egon dena ez den beste ikastetxe batean egingo du Batxilergoa. Hori dela eta, beharrezkoa da ikasle horiek eta haien gurasoek, ikasle adingabeen kasuan, behar besteko aurrerapenaz jakitea zein ikastetxe esleituko zaien Batxilergoa egiteko. Halaber, prozesuan zehar erreklamazioak eta, ondoren, gora jotzeko errekurtsoak egiteko eskubidea bermatu behar da, ikastetxe, kurtso, modalitate eta eredu bakoitzean onartutako ikasleen behin betiko zerrenda lortzeko.

Dado que una gran parte del alumnado que participa en este proceso de admisión cursará Bachillerato en un centro diferente del que ha estado matriculado hasta ahora, es necesario que estos alumnos y alumnas, así como sus madres y padres en el caso del alumnado menor de edad, conozcan, con la suficiente antelación el centro que se les adjudica para cursar Bachillerato, garantizando durante el proceso su derecho a realizar reclamaciones y, posteriormente, recursos de alzada, con el fin de obtener el listado definitivo de alumnado admitido en cada centro, curso, modalidad y modelo lingüístico.

Bestalde, Hezkuntza Administrazioak ikastetxe, kurtso, modalitate eta eredu bakoitzeko ikasleen zerrendak ezagutu behar ditu, arrazoizko epean eskola-taldeen plangintza egokia egiteko. Plangintza itxi ondoren, ikastetxe publikoei dagokien lanpostuen zerrenda berria egin behar da, ikastetxe bakoitzari bere hezkuntza-jarduera gauzatzeko behar dituen langileak esleitzeko.

Por otro lado, la Administración Educativa necesita también conocer los listados de alumnado por centro, curso, modalidad y modelo para realizar, en un plazo razonable, una adecuada planificación de los grupos escolares. Una vez cerrada la planificación, debe elaborarse la nueva Relación de Puestos de Trabajo correspondiente a los centros públicos, de manera que se adjudique a cada uno de ellos el personal necesario para llevar a cabo su actividad educativa.

2020/2021 ikasturtearen hasiera-data atzeratzea planteatzen ez denez, izapide horiek guztiak abuztua baino lehen amaitu behar dira nahitaez, eta, beraz, onarpen-prozesua berriz hastea "ezinbestekotzat" jotzen da, bai interes orokorra babesteko, bai zerbitzuaren oinarrizko funtzionamendua bermatzeko.

Puesto que no se plantea el retraso de la fecha de inicio del curso 2020/2021, todos estos trámites deben estar finalizados necesariamente antes del mes de agosto, por lo que la reanudación del proceso de admisión se considera “indispensable”, tanto para la protección del interés general, como para el garantizar el funcionamiento básico del servicio.

Ondorioz, Hezkuntzako sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak honako Erabaki hau hartu du:honako hau aurkeztu du:

En consecuencia, a propuesta de la Consejera de Educación, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

## ERABAKIA

“Maiatzaren 11tik aurrera, "Interes orokorraren babesa eta zerbitzuen oinarrizko funtzionamendua bermatzeko" (martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuaren idazketa berriarekin bat etorriz), baimena ematea 2020ko otsailaren 25eko Aginduaren bidez arautako ikasleak onartzeko prozedurari jarraipena emateko. Agindu horren bidez, 2020-2021 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publiko eta itunpeko pribatuetan Batxilergoko ikasleak onartzeko eskabideak aurkezteko egutegi komuna ezartzen da; era berean, jarraibideak onartzen dira ikasleok onartzeko eta hezkuntza-maila horretan irakaskuntza ofizialak ematen dituzten ikastetxe guztietan matrikulatzeko. Ondorioz, 2020ko otsailaren 25eko Agindu horren 2. artikuluan zehazten ziren eskabideak aurkezteko egutegi komuna eta onarpen-epeak eguneratzen dira eranskinean adierazitako baldintzetan”.

## ACUERDO:

“Autorizar la continuación del procedimiento de admisión de alumnado, regulado mediante la Orden de 25 de febrero de 2020, por la que se establece el calendario común de presentación de solicitudes y plazos de admisión, y se aprueban las Instrucciones para la admisión, para el curso académico 2020-2021, de alumnos y alumnas de Bachillerato en los centros públicos dependientes del Departamento de Educación y en los centros privados concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como para la matriculación en todos los centros que imparten enseñanzas oficiales de dicho nivel educativo, a partir del 11 de mayo con el fin de “garantizar la protección del interés general y el funcionamiento básico de los servicios” (de acuerdo a la nueva redacción, dada por el Real Decreto 465/2020, de 17 de marzo, del apartado 4 de la Disposición adicional tercera del Real Decreto 465/2020, de 17 de marzo). En consecuencia, se actualiza el calendario común de presentación de solicitudes y plazos de admisión, establecido en el artículo 2 de la citada Orden de 25 de febrero de 2020, en los términos indicados en el Anexo al presente Acuerdo”.

## ERABAKIAREN ERANSKINA

Eskabideak aurkezteko egutegi komuna eta onartzeko epeak

## ANEXO AL ACUERDO

Calendario común de presentación de solicitudes y plazos de admisión

a) Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko: maiatzaren 11tik 22ra, biak barne. Eskabidea on-line egiteko epea maiatzaren 21eko 24:00etan amaituko da eta beharrezko dokumentazioa eskaneatuta gehitu beharko da. Ikastetxeak dokumenturen bat konpontzeko eskatzen badu, dokumentazio hori eskaneatuta gehitu ahal izango da maiatzaren 22ra arte

b) Eskatzaileen zerrenda argitaratzea: maiatzaren 28a.
c) Behin-behineko zerrendak argitaratzeko: ekainaren 4a.
d) Behin-behineko zerrendei erreklamazioak egiteko: ekainaren 11 arte, egun hori barne.
e) Eskabideari uko egiteko: ekainaren 11 arte, egun hori barne.
f) Behin betiko zerrendak argitaratzeko: ekainaren 18a.
g) Matrikula egiteko aldi arrunta: ekainaren 22tik uztailaren 6ra, biak barne.
h) Behin betiko zerrendei gora jotzeko errekurtsoak jartzeko epea: uztailaren 20a arte, egun hori barne.

a) Entrega de solicitudes y documentación: del 11 al 22 de mayo, ambos inclusive. El plazo para realizar la solicitud on-line finalizará a las 24,00 horas del día 21 de mayo y se deberá adjuntar escaneada la documentación necesaria. Si el centro solicita la subsanación de algún documento, se podrá adjuntar esa documentación escaneada hasta el día 22 de mayo.

b) Publicación del listado de personas solicitantes: 28 de mayo.
c) Publicación de las listas provisionales: el 4 de junio.
d) Reclamaciones a las listas provisionales: hasta el 11 de junio inclusive.
e) Desistimiento de la solicitud: hasta el 11 de junio inclusive.
f) Publicación de las listas definitivas: el 18 de junio.
g) Período ordinario de matrícula: del 22 de junio al 6 de julio, ambos inclusive.
h) Plazo de presentación de recurso de alzada a las listas definitivas: hasta el 20 de julio inclusive.

Eta horrela jasota gera dadin eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 5ean. Era berean, jasota ere geratu da transkribatutako Akordioa jasotzen duen Akta Jaurlaritzaren Kontseiluak egingo duen hurrengo bileran aurkeztuko dela ontzat emateko.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación en Vitoria-Gasteiz, a 5 de mayo de 2020 haciendo constar que el Acta donde figura el Acuerdo transcrito, será sometida a la aprobación del Consejo de Gobierno en su próxima reunión.

JUAN ANTONIO ARIETA-ARAUNABEÑA IBARZABAL

Firmado digitalmente por JUAN ANTONIO ARIETA-ARAUNABEÑA IBARZABAL
Fecha: 2020.05.05 17:44:53 +02'00'